

# Illeta joten

Bizimoduan askotan gertaten dana da: Norberak asko irabazi nai. Baiña besteak asko eskatzen dabenetan, arin asarretu.

Edozetara be esan bear dana au da: ezer ez duala bera. Bizitzako gauzetan.

Gu zarrok, ordez, gero ta berago. Gero ta aul, negarti, illetatsu eta umore geiagoz bai, baiña ori bizitasun galtzea da, berantza joatea. Gertaera örreik aulkeri dira, makaltasun, ez bizitasun.

Lengora jota, ondo bizi nai dogu, baiña gitxi kostauta.

Udaran giroa aldatu, emen baiño euri gitxiago egiten daben tokietara joan, baltzitu eta sendotu, baiña erdi prezio-tan.

Ostatuak be zenbat eta izar geiago atsegiñago, baiña orretarako zillar moneda sendoen ordez, zeenak jandako paper merkez ordainduta.

Ezer ez duala bera... Eta zelan eta nundik jakin ez da be, emengoa «misterio» lakoa da. Igarri ez txarto bizi gareanik. Dagonian bon bon eta eztagonian or konpon, esanda lez.

«Zepai» bertsolariagaz gogoratzen naz bizitzako gertaera askotan.

Akilino Izaguirre Amenabar zan izen eta deitura jatorrez. Jaiotetxetik, baserri izenetik geratu jakon «Zepai».

Idiazabal'era aldatu zan bizitera. Ostatu bat ipini eban an. Eta jakiña, tokian tokiko.

Gu ondarrutarroi arrain usaiña artzen dauskue edonun.

Izan be Txomin Agirre zanak, bere «Kresala» nobelan esaten daben lez, «besigu eta atun tatoekaz azi eta lodituak gara gu», ta zer besterik artu lei

gure inguruan izerdia bera be arrain jatekoena ba dogu?

Guri, ikusi ordurako itanduten (galdetuten) dauskue: Eta? Arraiña merke?

Guk orain ba daukagu len baiño errazoi geiago erantzun txarra emoteko: Joan zeuok berreun millatetik kanporago ta ikusiko dozue andik zelako eskamak ekarten dozuezan.

Aitatu dogun «Zepai»ri be gaztai usaiña igarten eutsen. Idiazabal berak zer gogoratu eragiten dausku besterik ango gaztai on eta famatuak baiño?

Arerri bein bertsoetan itandu (galdetu) eutsen:

Gaztaia merke al dago  
Idiazabal ortan?

Eta berak, berezko eban baserritarren filosofiaz, zain egon barik, erantzun au emon be:

*Preziyo baju ori  
beti gerokotan,  
baiña an ere artzaiak  
etzebiltzak lotan,  
asko pagatu bear  
ona jatekotan.*

Alta'ko bertsolari batek be, Jose Garmendia'k, ba eukan bere gatz lodia erantzun zorrotzetan.

Sekula bizi ete gara ondo esateko eran?

Beti illeta eta negarrez.

Len, lan geiegi eta orduak ordu sartu bear.

Orain lanik ez eta nunbaitetik atara bear.

Alaz eta gero ta obeto bizi. Eta oraindik obeto biziteko izan gaitetzala. Ze arrai! Edozetan be, len eta orain, ez le-torke txarto Garmendia'k bein bota eban bertso au:

*Bizimodua nola duan gaur  
garbi adierazten det,  
ofiziyorik ez daukat baiño  
bastante irabazten det;  
janian ez det batere gulik,  
gorputza merke jazten det,  
etxian gutxi entregatu ta  
tabernan asko uzten det.*

Garmendia orain irurogei urte il zan.

Frailien antzera, nai ta eurak be iza-tez eta bizitez berakadan juan, egunero-ko examiña egingo ba gendu, ez ete gen-duce esango bertsolariak erriaren begirale dirala, ezaupide zorrotza dau-kela, eta gure gauzetan erdi profeta di-rala?